

## AITITA GURUTZEAREN OINETAN

1

Hemen gaukazuz, Jesus maitea  
zure aurrean apalik,  
Zeu zaitugula hor gurutzean  
gure zain beso zabalik.  
Aitak bialdu zinduzan, Seme,  
gu ikusita makalik,  
errukarri dan batentzat ez da  
inon holako magalik.

3

Aitarengandik etorri zinan  
o Jesus, gu salbatzera,  
bizira deika ibili zinan  
eskeiniz mila aukera.  
Azken batean osorik emon  
zure bizia berbera:  
gu bizitzeko, Zuk hil beharra,  
ama on baten antzera.

5

Horrenbestean maite ginduzun,  
hortik zure hil-beharra,  
egiten danaz erakusten da  
maitasunaren indarra.  
Jesus maitea, biztu niregan  
Zureganako sugarra,  
gaurtik aurrera izan zaitez  
Zeu nire bizi bakarra.

7

Poz ta adorez betetzen nozu  
gurutzearen oinetan,  
ez naz bakarrik sentitzen orain  
bideko nekeminetan.  
Zeugaz batera iraun gura dot  
kondizino bardinetan,  
gero zeruan Zeugaz batzeko  
betiko atseginetan.

2

Urte askotan izan zaiataz  
kontu hartzeko jueza,  
Bizian Gorak eragin eustan  
zorioneko amesa:  
Aitatxo ona zaitugula ta  
hasarretuten nekeza;  
hauxe da pena, egi eder hau  
lehenagotik jakin eza!

4

Seme bakar bat izanda bera  
gu salbatzera bialdu,  
eta Zuk Jesus, gurutze baten  
biziaren truk salbatu.  
Hau jakiteak begi-bihotzak  
batera deustaz zabaldu:  
Zuk honenbeste eginda gero,  
zelan leiteken bat galdu!

6

Hor gurutzean gora igonda  
Maixu on baten antzera,  
zenbat kostata salbatu nozun  
benetan erakustera.  
Zeu zaitut lagun zahartzarorako,  
zatoz laster laguntzera,  
gurutz-orduan alkartzen gara  
Zu ta ni biok batera.

8

Gaur bedeinkatzen zaitut, Jesus,  
nahizta ukatu behinola,  
pekatariok, zugar daukagu  
salbazinoko kaiola.  
Aitari deika, gutzat parkeske,  
borbor odol dariola!  
Zeu gurutzean zaitugu, Jesus,  
gure Maixu ta eskola.

A. Martzel